

Gizontxo

Behin batean, bazen gizontxo bat, biboteduna, Espainian agintzen zuena. Ez zen madrildarra, baina Madrilen bizi zen, agintariaren jauregi ederrean.

Gizontxoaren emazteak haginez betetako irribarrea zuen, eta hark ere asko agintzen zuen. Bazuten alaba bat, oso kuttuna, eta etorkizun handiko gaztearekin ezkondu zuten. Ezkontzak bildu zuen gonbidatu asko, nor baino nor handiago eta dotoreago. Gutxi batzuek gehiegizko iritzi zioten, baina zarata handirik barik.

Gizontxo bibotedunak *pito* ahotsa zuen eta ez zen hizlari aparta. Baina gogoko zuen hitz egitea, telebistan edo zaleen aurrean. Eta zaleek neurri gabe txalotzen zuten, gizontxoak aginte erabatekoa zuen eta. Batzuek gogoratzen zuten nola erruki barik baztertu zituen bideko lehiakideak, baina isilik zeuden.

Pentsaeraz eskuindarra zen, *fatxa*. Oso laguna zuen Italiako agintaria, hura ere eskuindarra eta *fatxa*. Gainera, Ameriketako nagusiaren morroi leiala zen. Aldiz, gorroto zituen iparraldeko euskaldun matxinoak, eta gogor eraso zituen, legearen indarrez eta indarraren legez.

Demokrazia aipatu, aipatzen zuen, baina egin zuen oso demokratiko ez den zerbait: bere ondorengoa izendatu. Hautagaiak bat baino gehiago ziren eta dantzan ibili zituen azken ordura arte.

Dena ondo lotu ondoren, gizontxo biboteduna oraintsu 27 urte hil zen. Ala beste norbait zenuen buruan?